

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jose Luis Gorrotxategi Zangitu

*Bergara,
Gipuzkoa
(1945)*

Aurkibidea



Biografia



Osintxun jaioa, ama bertako Izarre baserrikoa zuen eta aita, berriz, Elgetakoa. Auzoko eskolan ibili zen, eta gero Bergarako Elementalean egin zituen ikasketak. Jesus Alberdi "Egileor" bertsolariarekin hasi zen bertsotan, 18 urterekin. 1963an hasi zen plazan kantatzen, eta 55 urtean han eta hemen aritu da kantuan. Birritan izan zen finalista Bertsolari Txapelketa Nagusian (1967an eta 1980an), eta Gipuzkoako txapeldunorde ere atera zen 1967an. Loiola herri irratiko saria irabazi zuen pare bat aldiz. 27 urterekin Azpeitira ezkondu zen, eta geroztik hantxe bizi da; altzari lantegi batean egin du lana. Elkarrizketan [Koldo Alberdi "Egileor II"](#) bertsolaria ere bazegoen.

Zintak

BER-344

- **Proiektua:** Euskararen historia soziala Bergaran
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2021-03-01
- **Iraupena:** 76 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Bertsotako ibilbidearen hasiera eta amaiera

- **Erref:** BER-344/005
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:02:29. **Bukatu:** 00:05:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Lagun batek ikasitako bertsoak kantatzen zituen eta berak asmatutakoak erantzun. Lagunek animatuta Osintxun bizi zen 'Egileor' bertsolariarengana

joan zen. Harritu egin zen hura, bera oso lotsatia baitzen. `Basarri´ren eta Pedro Mari Otañoren liburu bana eman zizkion eta hamabost egunean buruz ikasi zituen. Jai baten Osintxun egin zuen lehenengo bertso saioa eta handik laster debuta Bergarako pilotalekuan. Ia 56 urte bertsotan pasa ostean, Urepelen eman zion amaiera bere ibilbideari. Bertso-saioak uzteko arrazoiak.

2. Gurasoen jaiotetxeak

- **Erref:** BER-344/007
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:05:36. **Bukatu:** 00:06:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aita Elgetakoa zen, Aixolako urtegiaren azpian geratu zen baserrikoa. Ama Osintxuko Izarrekoa. Aitonak Urdangarin familiakoei erosi omen zien Izarre baserria. Beherago egin zuten Izarreberri baserrian jaio zen Jose Luis.

3. Bertso zaletasunaren jatorria; `Basarri´ren "Nere bordatxotik"

- **Erref:** BER-344/008
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:06:28. **Bukatu:** 00:07:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Bertsotarako zaletasuna nondik datorkion. Bederatzi urte inguru zituela, Osintxuko Kofradia jaietan `Basarri´eta `Uztapide´ entzun zituen bertsotan. `Basarri´ren "Nere bordatxotik" irratsaioa eta "La voz de España" egunkariko atala. Han etortzen ziren bertsoak buruz ikasten zituen.

4. Emeterioren bertso-jakinduria jaso gabe geratu zen

- **Erref:** BER-344/009
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:07:26. **Bukatu:** 00:09:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Umetan ezagutu zuen Osintxuko `Egileor´ bertsolaria. Haren osaba Emeteriok bertso asko zekizkien. Auspoa argitaletxeko aita Zabalak horren berri izan zuen eta bertsoak grabatu nahi izan zizkion, baina grabaketa egin aurretik hil zen.

5. Bergarako bertso-saioak eta zaletasuna

- **Erref:** BER-344/010
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:09:02. **Bukatu:** 00:10:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Osintxun eta Bergaran bertsoarako zaletasun gutxi zegoen bere gazte denboran. Auzo guztietan jartzen ziren bertsolariak jaietan. Herrian, "Erramu zapatu" arratsaldean `Basarri´eta `Uztapide´ egon izan ziren urte askoan. Ez zen beste saiorik izaten. Gerora, Bergarako pilotalekuan egiten zen jaialdia.

6. Debuta Bergarako Pilotalekuko jaialdian

- **Erref:** BER-344/011
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:10:58. **Bukatu:** 00:12:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak

Laburpena:

Basalgoko Lonbide baserriko Benito Irasuegi eta Martin `Egileor´ekin egin zituen lehen bertso-saioak. Soldadu joan behar zuten mutilek antolatutako jaialdian debutatu zuen, Jose Ramon Madinabeitiak animatuta. Pilotalekua goraino bete zen. Nolako ikuskizuna izan zen. Gero bazkaria Hotel Lasan. 50na pezeta ordaindu zieten.

7. Loiola irratiko saioen laguntzaz hasi zen ezagun egiten

- **Erref:** BER-344/015
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:13:51. **Bukatu:** 00:14:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

1963an egin zuen lehenengo saioa. Gerora, batera eta bestera hasi zen. Joxe Mari Iriondok Loiola irratian urtero antolatzen zuen bertsolari gazteentzako txapelketarako deitu zion. Urte zaharretan zenbait bertsolari gaia eman eta bertsoak grabatzen zizkien Iriondok, irratian botatzeko. Hortik hasi zen pixkanaka jendea bera ezagutzen.

8. Bera ere finalean zegoen Xalbadorri txistu jo ziotenean

- **Erref:** BER-344/016
- **Iraupena:** 0:04:51. **Hasi:** 00:14:52. **Bukatu:** 00:19:43

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Soldadutzara joateko zegoela, Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalera sailkatu zen. Han ezagutu zituen Xalbador eta Mattin. Ez zuen Xalbadorren euskara ulertzen. Txapelketa haren inguruko kontuak. Buruz burukora pasa zenean Xalbadorri jo zizkioten txistuak eta gero abestu zuen bertsoa. Nola bizi izan zuen guztia.

9. 1980ko Txapelketa Nagusia; berritasuna ekarri duten bertsolariak

- **Erref:** BER-344/017
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:19:43. **Bukatu:** 00:20:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

1980an bigarren aldiz iritsi zen Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalera. Garai horretan denek beste maila bat zutela dio. Amuriza lan handia eginda joan zen eta berak irabazi zuen txapela. Bertsotan hiru bertsolarik ekarri dute berritasuna bere ustez: Pedro Mari Otañok, ´Basarri´k eta Amurizak.

10. `Basarri´k ekarritako aldaketak; `Txirrita´rekin txapelketan

- **Erref:** BER-344/018
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:20:48. **Bukatu:** 00:22:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

`Basarri´k zer aldaketa ekarri zituen orduko bertsolaritzan. 20 urterekin txapelketa batean parte hartu zuen eta inork ez zuen ezagutzen. Txapela irabazi zuen, `Txirrita´ren aurretik sailkatuta. Hurrengo urtean `Txirrita´k irabaz zezan, aurkezle lanean ipini zuten `Basarri´.

11. Hainbat txapelketatan hartu du parte

- **Erref:** BER-344/020
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:22:31. **Bukatu:** 00:23:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Bertsolari Txapelketa Nagusiaz aparte, zer beste txapelketatan parte hartu izan duen. Bertso onenaren saria ere irabazi izan du. Bizkaian eta Gipuzkoan asko ibili da. Asko ziren plaza onak. Bertsolari gazteak ezagutzearen joaten zen jendea.

12. Bergarako eta inguruko bertsolariak

- **Erref:** BER-344/021
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:23:35. **Bukatu:** 00:24:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

1963an debuta egin zuenean `Egileor´ eta Lonbide baserriko Benito Irasuegi izan zituen lagun. Bergaran ez zegoen bertsolari gehiago. Antzuolan Gabilondo eta Barrena. Elgoibarren `Armaitta´ anaiak. Eibarren Uranga, izatez oriotarra.

13. Bertso jaialdietako gai-zerrenda Gobernu Zibilean onartu behar

- **Erref:** BER-344/022
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:24:15. **Bukatu:** 00:26:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Frankismo garaian Gobernu Zibilaren oniritzia behar zen bertso jaialdi bat egiteko eta bertan kantatzeko. Gai-zerrenda ere bidali behar izaten zen. Gai guztiak Urtain boxeolariaren ingurukoak jartzen zituzten. Behin Donostian Iriondo Gobernu Zibiletik pasa gabeko gaiak jartzen ari zela gertatutakoa. Jose Luisi berari ere debekatu zion behin Gobernu Zibilak Lasturren kantatzea.

14. Frankismo garaian Gobernu Zibilak debekatutako bertsolariak

- **Erref:** BER-344/023
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:26:26. **Bukatu:** 00:29:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Politika » Politika eta Franco
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Frankismoan Gobernu Zibilak debekatuta izan zituen bertsolariak: Azpillaga, Lopategi eta Xalbador. Ihes eginda Iparraldera pasatzen ziren ETAkideak etxean hartzeko prest agertu zelako debekatu zuten Xalbador. Azpillaga eta

Lopategi, berriz, politika kontuetan sartzen zirelako. Askotan saioa antolatu zutenek ordaintzen zuten haiei jarritako isuna. `Lazkao Txiki´k 1500 pezetako isuna ordaindu behar izan zuen txikieria bategatik. Lizaso eta Agirre atxilotu zituztenekoa.

15. Bertsotarako gaiak aldatzen eta kaletartzen

- **Erref:** BER-344/025
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:29:39. **Bukatu:** 00:31:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Garai batean bertso-saioetara joaten zen entzuleen gehiengoa baserritarra zen eta gaiak haientzako modukoak. Gaiak nola hasi ziren aldatzen eta kaletartzen.

16. Txapelketek errespetua bai, baina beldurrik ez

- **Erref:** BER-344/029
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:33:51. **Bukatu:** 00:36:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Gipuzkoako txapeldunorde geratu zen 1967an eta zuzenean sailkatu Txapelketa Nagusiko finalera. Soldadu joateko zegoenez, Patxi Etxeberria (3.sailkatua) zegoen bere ordezkotzat badaezpada. Plazan ez da sekula urduri jarri izan, zenbat eta jende gehiago egon, nahiago. Txapelketak errespetua bai, baina beldurrik ez dio eman izan. Garai batean maila handiko bertsolari gutxiago zegoen.

17. Jesus `Egileor´, koplari ona eta ahots gozokoa

- **Erref:** BER-344/032
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:37:31. **Bukatu:** 00:38:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Gaztetan, bertsoan hasi zenean, Jesus `Egileor´ auzotarrarengana jo zuen. Geroztik plaza gehien harekin egin izan zituen, konfiantza handia zuten eta. Bertsolari ona zen, baina jendeak haren ahotsa estimatzen zuen asko. Anaia Martinek, berriz, ahots txarra eta kirrimarra zuen. Koplari ona zen Jesus.

18. Soldadu joan behar zuten mutilak Santa Ageda koplak kantatzen

- **Erref:** BER-344/033

- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:38:55. **Bukatu:** 00:39:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

Garai batean Bergara inguruan soldadu joan behar ziren mutil gazteak irteten ziren Santa Ageda koplak kantatzen. Ez zen bat-bateko bertsorik kantatzen, ikasitakoak bakarrik. Hilberriren bat zegoen etxeetan errezatu egiten zen.

19. San Martzial auzoko jaietako lehenengo bertsolariak

- **Erref:** BER-344/036
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:41:06. **Bukatu:** 00:42:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Bertsotarako Bergarako auzo onena Elosu. San Martzial auzoan jende asko biltzen zen, baina oso gutxi egoten ziren bertsoak entzuten. 19 urterekin kantatu zuen lehenengoz San Martzialen. Bera eta 'Egileor' hasi aurretik ez zen egoten bertsolaririk. Herritarrak pixkanaka zaletzen joan dira eta azken urteetan herriko gazteak ere animatu izan zaizkie bertsotara.

20. Bertso serioak gustuko; euskalkia ala euskara batua?

- **Erref:** BER-344/039
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:44:33. **Bukatu:** 00:45:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Berak ez duela "txispadun" bertsokera dio; nahiago izan du seriotasuna. 'Basarri' eta Otaño bertsolariak izan zituen eredu. Amurizak aldaketa handia ekarri zion bertsolaritzari: doinuak, errimak, esateko modua... eta euskara batuan kantatzea. Berak orain ezingo lukeela bertsoa Osintxuko euskararen kantatu dio.

21. Bertso jaialdien antolatzaileak eta zaletasuna zutenak

- **Erref:** BER-344/041
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:46:00. **Bukatu:** 00:48:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Bergarako herriko jaialdiak Udalak antolatzen zituen. Auzoetakoak, berriz, auzoko gazteek normalean. Bazeuden zaletasun handia zuten herritarrek. Gogoan du Udalean lan egiten zuen gizon bertsozale bat. Bittor Satorretxe bertsozalea.

22. Josu Oregi, euskaltzaina eta bertsozalea

- **Erref:** BER-344/044
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:48:51. **Bukatu:** 00:49:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Josu Oregi, euskaltzaina eta oso bertsozalea. Epaila lanean ere jarduten zuen. Etxean liburuz betetako gela handi bat zuen, tartean Auspoa argitaletxearen bilduma osoa.

23. Zizurkilen Otañoren jaiotetxean futbolearen ari zen mutikoa

- **Erref:** BER-344/045
- **Iraupena:** 0:03:44. **Hasi:** 00:49:36. **Bukatu:** 00:53:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Bere bertsolari ibilbidean 1967ko eta 1980ko Txapelketa Nagusiko finalak izan dira puntu garrantzitsuenak. Badu Zizurkilen gertatutako anekdota berezi bat ere. Lopategi eta Azpillagarekin joan zen. Otañoren senide bat etorri zitzairen eta haren jaiotetxera eraman zituen, Errekalde baserrira. Sukaldean mutiko bat zebilen baloiarekin jolasean. Gerora jakin zuen Jose Inazio Garmendia zela, urte luzez Eibar futbol taldeko atezaina izan zena.

24. Muga zeharkatzerakoan `Basarri´k guardia zibilei esandakoa

- **Erref:** BER-344/048
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:55:23. **Bukatu:** 00:56:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Matxin Irabola Senpereko bertsolaria bigarren geratu zen 1935eko Txapelketa Nagusian, `Basarri´ren atzetik, eta handik gutxira hil zegin zen. Handik urte askora omenaldia egin zioten Senperen. Hara zihoazela, `Basarri´k muga guardia zibilei esandakoa.

25. `Uztapide´k kantatutako azkenengo bertsoak

- **Erref:** BER-344/049
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:56:30. **Bukatu:** 00:59:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

Donostiako pilotalekuan hainbat bertsolarik saioa egin zuten, tartean `Uztapide´ zela. Bertsoa kantatzera zihoala, kantatu ezinik geratu zen `Uztapide´. Gero jakin zuten bihotzeko txiki bat izan zuela. Geroztik ez zuen gehiago kantatu, idazten jarraitu zuen arren. Entzuleen artean zegoen Hernandorena dentistarekin saio amaieran izan zuen elkarriketa.

26. `Lazkao Txiki´k ateraldi ugari

- **Erref:** BER-344/050
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:59:30. **Bukatu:** 01:01:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

`Lazkao Txiki´ mutil ona, baina jenio bizikoa. Egun ona zuenean, bertsotan izugarria. Ateraldi asko izaten zituen. Behin Dorletara bertsotara joan zirenekoa kontatzen du.

27. Emaztea eta biak Xalbador bisitatzera Urepelera

- **Erref:** BER-344/051
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 01:01:19. **Bukatu:** 01:03:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Lanbideak » Polizia
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:

Xalbador bertsolaria serioa zen, baina lagunarterako jatorra. Emaztea eta biak Gotaine-Irabarnera joan ziren behin pastoralara ikustera. Iruriko Etxahun zen

artista nagusia. Bueltan, Xalbador bisitatzera joan ziren Urepelera eta bertan geratu ziren lo egiten. Bertso mordoa kantatu zuten. Xalbadorrek Afrikatik muga zeharkatzeko ekarri eta Urepeleko mendietan abandonatu zituzten mutilei ateratako bertsoak kantatu zizkien. Gaztelaniaz ondo zekien, guardia zibilekin ikasita.

28. `Egileor´ek Andrakas toponimoarekin egindako hitz-jokua

- **Erref:** BER-344/053
- **Iraupena:** 0:03:33. **Hasi:** 01:03:13. **Bukatu:** 01:06:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Hasi berritan `Egileor´ekin ibiltzen zen gehien bertsotan. Gerora, azpeitiarrekin (Agirre, Lazkano eta Lizaso) eta Bizkaia aldera Azpillagarekin ere asko. `Egileor´, Mugartegi eta Ibarzabal Zornotzara bertsotara joan ziren batean hango gizon batekin izandako elkarrizketa eta `Egileor´ek Andrakas toponimoarekin egindako hitz-jokoa.

29. Emakumeen bidea bertsolaritzan

- **Erref:** BER-344/054
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 01:06:46. **Bukatu:** 01:07:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Bertso mundua garai batean oso maskulinoa zen: bai bertsolariak eta bai entzuleak gizonezkoak. Emakumezko bertsolariak baziren: Otañoren arreba, Pello `Errota´ren alaba, Iñaxi (Etxabe)... Geroago Arantzazu Loidi eta Kristina Mardaras. Gaur egun entzuleak, epaileak... dira emakumezkoak. Garai batean hori sinesgaitza zen.</p>

30. Jendeak enkarguz eskatutako bertsoak

- **Erref:** BER-344/057
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 01:10:11. **Bukatu:** 01:12:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

"Gogoan dauzkadanak" liburua kaleratu zuen, galdu aurretik bertsoak jasota

geratzeko. Jendeari enkarguz egindako bertso asko ez zituen gordetzen eta horren pena izan du gerora. Bergarako gizon batek alabaren jaunartzerako bertsoak eskatu zizkion. Harekin gertatutako anekdota.

31. Bertso onenaren saria irabazitako "Nor da euskaldun" bertsoa

- **Erref:** BER-344/059
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 01:13:13. **Bukatu:** 01:14:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Donostiako Santo Tomas Lizeoak urtero bertso jaialdi bat antolatzen zuen. Aranaldek eskolak ematen zituen bertan eta gai-jartzaile lanak egiten zituen. Bertso onenaren saria irabazi zuen "Nor da euskaldun" bertsoarekin. Kantatu egiten du.

32. Euskararekiko sentimendua; eskolan gaztelaniaz

- **Erref:** BER-344/060
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 01:14:24. **Bukatu:** 01:16:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Euskara zer den berarentzat. Eskolan gaztelaniaz egin behar izaten zuten, baina irakasleek ez zituzten zigortzen euskaraz egiteagatik. Osintxuko eskolan ibili zen 13 urtera arte. Irakasleak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-09-08

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com